

#JesusGureanEreBidelagun KATEKESIA

DELEGACIÓN DE ANUNCIO Y CATEQUESIS
FEDE ZABALKUNDE ETA KATEKESIRAKO ORDEZKARITZA

Mendekoste

Jesusen Espiritua dugu lagun

Familia Ikuspuntutik

Espiritu Santua, giza elkarte den familian dago bere lokarriak sendotuz: elkarrengan konfiantza izaten lagunduz, elkar begirunez hartzeko bidea erakutsiz, tirabirak arintzen, gatazkak elkarren onerako arintzen eta elkarri barkatzen irakatsiz.

Kristau izatea, gizabanako bakoitzarengan, Elizan eta munduan jarduten duen Espirituaren gidaritza eta sendotasuna onartzea da. Espiritua dugu gidari eta adore-emaile, Jesusen atzetik jarrai dezagun eta Jainko Aitarengan konfiantza osoa jarri. Honetan datza Espirituaren eragina: sua jartzean gauzak, hartu-emanak hotzak direnean eta argi egitean, iluntasunak biltzen gaituenean.

Pandemia eta konfinamendu aldian ere, era batera edo bestera denoi sufritzea egokitu zaigun garai zail honetan, Jesusen Espirituak jardunean, guri lagun eginez, jarraitzen duela senti dezakegu. Errealitateari Jesusen begiez begiratzen diogunok zera sumatzen dugu:

- Jesusen Espiritua izan da osasun arloko hainbeste profesionali adore eta indar eman diona, zailtasun guztien gainetik, dena emateko uneoro.
- Jesusen Espiritua izan da bakarrik dagoen hainbeste pertsonari, nagusiei, gaixoei,... lagun egin diona, bere kontsolamendua emanaz.
- Jesusen Espiritua izan da aldarte ona berreskuratzen lagundu diguna, muga-mugan, indarge aurkitu izan garen une hauetan.
- Jesusen Espiritua izan da... sumatzen duzu bere presentziaren zeinuren bat zeuregan, zeure familian, zeure inguruan, gizartean?

Hasierako ikasle haiei gertatu zitzaien bezala, gaur ere Jainkoaren Espirituak adore ematen digula, eutsi eta bidali egiten gaituela sinetsita ospatzen dugu Mendekoste..

**Irakurtzeko,
klikatu irudiaren gainean**



**Ikusteko,
klikatu irudiaren gainean**



**Zatoz, Espiritu Santua,
indarberritu gure bihotzak,
lagundu Jesus en jarraitzaile izaten!
Zatoz, Espiritu Santua!**

**Zeuk ematen diguzu Jesusen bizia,
zeuk bultzatzen gaituzu Hari jarraitzera,
zeuk gogoratzen dizkiguzu bere hitzak,
zeuk argitzen gaituz eta indarra ematen diguzu,
zeu zaude geure barruan
etafedez, itxaropenez eta maitasunez betetzen gaituz.**

**Espiritu Santua, zugar sinesten dugu.
Aintza Aitari eta Semeari
eta Espiritu Santuari. Amen.**

Mendekosten, Jesus Berpiztua bere Espirituaren bidez, bere indarra, adorea, maitasuna, berotasuna,... emanaz, jarraitzaile guztioi, Eleiza osoari lagun eginez, betirako geure artean dela ospatzen dugu.

Hasteko ...

- Etxean leku lasaia aukeratu eta hantxe elkartuko gara, eroso jarri eta kandela piztuko dugu.
- Hasteko, 'rezandovoy.org' web orrialdean haurrentzat aurkeztan den kontaketa eta azalpenak entzungo ditugu.
- Ondoren, ebanjelioko txatara aurkeztuko dizuegu.

(Grabazioak 6 minutu inguruko iraupena du. Gutxi gora-behera, 2:50 minutura arte entzun.)



**Entzuteko,
Klikatu Irudiaren gainean**

EBANJELIOKO KONTAKETA: Eg 2, 1-11

“Jesusen adiskideak, beronek agindutako Espirituaren etorreraren zain zeuden, hori zer izan zitekeen ondo ez bazekiten ere. Egun batean, elkarrekin zeuden Jerusalemen bizileku zuten etxean. Orduan gauza arraroa gertatu zen. Lehenengo, haize-boladarena bezalako burrunba entzun zuten. Gero, suzko mihiak bezalako batzuk ikusi zituzten, bakoitzaren gainean bana kokatzen. Bat-batean, inoiz ez bezalako egundoko poztasuna, adorea, indarra eta jakinduria sentitu zituzten. Jesus bera, beste era batera, barru-barruan, beraiekin zela zirudien. Hori bere Espiritua zen.

Eta Espirituaren eraginez, kalera atera ziren. Dagoeneko ez ziren atxiloteten beldur. Jesusen Berri Ona zabaltzeko gogoia baizik ez zuten. Egun hartan hiria hainbat herrialdetako pertsonen beteta zegoen. Jesusen adiskideak Jesusek kontatutako gauzez hitz egiten hasi ziren. Eta denek ulertzen zutela zen harrigarriena. Munduko hizkuntza guztiak hitz egiteko gauza zirela ematen zuen”.


Barneratzeko ...

Mendekoste eguna ospatuko dugu. Mendekosten, ikasleek, Jesusen adiskideek, beren bihotza Espiritu Santuaz betetzen dela, Jainkoak beren bihotza ukitzen duela sentitzen dute. Jesusen adiskideak, Jesusek irakatsitako gauzez hitz egiten hasi ziran eta, era harrigarrian, denek ulertzen zituzten. Munduko hizkuntza guztiak hitz egiteko gauza zirela ematen zuen.

Munduko edozein lekutan, denok ulertzen dugun hizkuntza bat dago: bihotzarena, irribarreana, ferekena, arimatik zuzenean datorrena. Espirituarengandik jasotzen dugun hizkuntza da; hizkuntza hori hitz egiten duzunean, askoz zoriontsuagoa zara... Zorioneko izan nahi duzu? Hizkuntza hori hitz egin nahi dugu, gure adiskideen arimari begiratu, eta bihotzetik begiratu, horrela Jesusen adiskide izatearen poztasuna transmititu ahal izateko. Animatzen zara? Eskatu Jesusi egunero bere Espiritua oparitzeko honek zure bihotza bete dezan.

Egiteko

- Bi orrialdetan, bi giza kate marraztu (pertsonek siluetak) eta kontu handiz ebaki, eskutik lotuta gera daitezten irudiak.
- Elkarri lotuta dauden besoetan, gora eta behera idatzitako lerroan, CO-MU-NI-DAD / EL-KAR-TE-A idatzi errotuladoren.
- Elkarte izatea eta sentitzea, bat eginik sentitzea da, bakoitzak dena eta eman dezakeena batera jartzea, elkarlanean aritzea, elkarrekin besteen alde zerbait egitea.
- Horregatik, irudiaren erdialdean (barrualdean), elkarteari, parrokiari, Jesusen lagun-min izaten jarraitzeko zer eskain diezaiokegun idatziko dugu.
- Ondoren, irudien bi kateak zelaiz lotuko dituzu muturretatik, giza-kate bakoitza, zirkulua egin, eta zutik gera dadin.



Egiteko...

Kartulina handi baten erdia (edo, bestela, folio tamainakoa) behar duzu. Kartuliaren alde batean, ondoren aurkeztutako galderen erantzunak idatziko dituzu. Kartulinaren eremu guztian idatziko dituzu.

- Tristura eragiten dizuten gauzak idatzi.
- Gertatzen direnean, adoregabetzen zaituzteten gauzak idatzi.
- Beldurra eragiten dizuten gauza edo egoerak idatzi.
- Zuzendu, hobetu nahiko zenituzkeen gauzak idatzi.
- Jesusen adiskide izatearen inguruan dituzun zalantzak idatzi.

Erantzun ondoren, kartulinari buelta eman, eta alde horretan, koadroa margotuko duzu. Pintzela eta kolore askotako akuarelak behar dituzu (hatz-margoez ere egin dezakezu). Kartulina osoa koloretako orbanek bete, osorik, inongo tartetxorik zuriz utzi gabe.

Zure koadroa, koloreen eztanda izango da. Horrela adieraziko duzu Espiritu Santua zer den: Jainkoaz betetzen gaituen eta kartulinaren beste aldean idatzi duguna gaitzen eta garaitzen laguntzen digun kemen edo indarraren eztanda.

Espiritu Santuak guregan duen eragina da. Margotutakoa lehortzen denan, pintzela hartu eta margo zuriz, esaldi hau idatziko duzu koloretako orbanen gainean: ZATOK ESPIRITU SANTUA.

Orain, atara argazkia egin duzuen lanari eta partekatu zuen sare sozialetan, hashtag #JesusGureanEreBidelagun.

Otoitz Egiteko ...

**KAIXO, JESUS, ADISKIDEA.
ZEIN BEHARREZKOA DUDAN ZURE ESPIRITUA POZTASUNA,
ADOREA, ITAAROPENA, BAKEA, SENDOTASUNA
EZ GALTZEKO, ZAILTASUNEI AURRE EGITEKO.
ZEIN BEHARREZKOA DUDAN ZURE ESPIRITUA
NIRETZAT ZER DEN ONA ETA ZER TXARRA,
ZER EGIN BEHAR DUDAN ETA ZER EZ,
EGUNERO NEURE ALDERDIRIK ONENA ATERATZEKO
ZEIN BIDE AUKERATU BEHAR DUDAN BEREIZTEKO.
HORREGATIK, JESUS, ADISKIDE,
EMAN ZURE ESPIRITU SANTUA, NIRETZAT AMESTEN DUZUNA
IZAN NADIN ETA EGIN DEZADAN**

Evangelios Dominicales, José Real Navarro.
Ciclo A para niños/as.

**Abesteko,
Klikatu irudiaren gainean**

